

## 6. KANALAK

Gure kanalak zeharkakoak izango dira, bitartekaririk izateak sahiesten dugulako, osotako salmenta-mailen bidez saltzen dugu gure bezeroei. Ez dira izango zuzenak kanalak ez dugulako izango denda fisiko bat bertan joan ahal izateko, baizik eta bulegoak eta fabrikak



Gure produktua eraikuntzarekin lotutako enpresetara zuzenduta dago gehienbat, baina baita pertsoneri ere, produktua beraiek erabiltzeko egina baitagoelako. Ahal dugun guztia egingo dugu gure produktua pertsona gehienek eskura egoteko.

Pertsonak edozein zikinkeria botako dute beraien zaborrontzira, eta horiek hodi batzuetara konektatuta egongo dira. Tutu bakoitzak sentsore bat izango du botatuko produktua zertaz eginda dagoen identifikatzeko eta etxebizitzarako eraikuntza baikoitzean egongo den kontainerrean dagokion sekziara eramango du, materialaren arabera. Baina, zaborra botatzeko mekanismo berritzaile hau ezartzeko, enpresa eta gaiaren inguruko espezialista desberdinekin elkartuta egon beharko gara.

Beste aldetik, instalatuko ditugun hodiak nolakoak izango diren antolatuko dugu; horretarako, ingurumen-erakunde batekin komunikatuko gara eta harekin, materialak nola bereizten diren jakin ahal izango dugu, bai eta materialak gero birziklatzeko sailkatzeko modurik onena zein izango litzatekeen ere. Horrela, gure helburua bermatuko dugu, hau da, gure planeta zaintzea.

Zaborra nola sailkatuko dugun jakin ondoren, arkitekto batzuekin hitz egin beharko genuke; hodiak instalatzeko modua aztertzeko, pertsonak etxebizitzatik atera behar izan gabe eta erakuntzaren egiturari inolako kalterik eragin gabe. Gure nahietako bat da ahalik eta eragozpen gutxien eragitea komunitateko bizilagunei, instalazioa egiten den bitartean. Kontaktuan jarriko dugun arkitektoen laguntzarekin, jakingo genuke nola lortu eraikuntzen barruan gure instalazioak jartzea eta lurpean egongo den edukiontziaekin lotzea. Baina aurretik, eraikinaren jabeekin hitz egin beharko dugu, eraikuntzaren eta lekuaren planoak eman ahal izateko.

Ezarriko dugun kontainerrari buruz, eraikuntza enpresaren bat kontratatu beharko dugu instalatu ahal izateko. Hori lortzeko, udalarekin hitz egingo dugu, beharrezko baimenak eman diezazkiguten. Lehenik, edukiontzi bat ezarriko da bizilagun-komunitate bakoitzean, oso txikia ez bada behintzat. Oso leku txikietan edukiontzi komun bat jarriko dugu, auzo bakoitzeko bat edo bi. Dena eraikitzeko eta

instalatzeko orduan, eragozpen batzuk suertatuko dira, baina ahalik eta azkarren eta hoberen egiten saiatuko gara.

Publizitate kontuetan, gure produktua aurkezteko ideiarik onena erakusketa irekia egitea da, publiko guztiarentzat. Hiriko plaza nagusietan bilduko gara, eta bertan, produktuaren froga bat erakutsiko dugu, bertsio murriztu batean. Horrela, jendeak produktuaren erabilera ezagutuko luke eta konturatuko da ez dela beharrezkoa formazio edo ikasketarik izatea produktua erabili ahal izateko. Horretaz gain, esparru teknologikotik ere mugituko gara; iragarkiak jarriko ditugu telebista kate batzuetan, baita sare sozialetan ere.

Bestalde, gure asmoa zaborra botatzeko sistema honek ahalik eta jende gehiengoari iristea da; horretarako, hainbat kartel jarriko ditugu hiri handietan. Hainbat dei egingo genituzke honekin lotutako hainbat enpresatara, gure ideia berria eskaintzeko eta gure proiektuaren parte izateko. Hirietako alkateak ere oso lagungarriak izango dira, izan ere, asko erraztu ahal izango digute proiektua aurrera eramateko orduan.